

"On Camillo"  
Giovannino Guareschi  
euskaratzailea: Koldo Biguri  
Ibaizabal, 2001

Italiako iluntzetan plazako eserlekuan kontatutako istorio laburrak dirudite Guareschirenak. Koldo Bigurik egin du posible hizkuntzen arteko zubitik behera bizitasun izpirik ez erortzea.

## Marx eta erlijioa

Errespetua diet itzultzaileei. Ibaizabalek orain dela gutxi aurkeztu dizkigun bost perlak —Ionesco, Valle-Inclán, Jan Neruda, Bulgakov eta esku artean darabilgun Guareschi— euren zolitasunaren adibidea dira. Ez ditut guztiak irakurri, "On Camillo" honekin ibili naiz buru-belarri, baina argi dago literatura unibertsalaren gero eta ideia osoagoa ematen digun apala sortzen ari garela apurka-apurka. Osotasun hori derrigorrezkoak diren liburu bildurgarriekin eta eskuratzen dizkiguten titulu "arinagoekin" lortzen da. Parmako idazlearen istorio bitxi bezain biziak azpiliteratura direla uste dutenei esan behar zaie baietz, hala definitzeko nahi badute. Ukaezina da, ordea, era honetako lanen balioa eta irakurleari ematen dion plazerra. Italian bertan konturatu dira jadanik horretaz. Izan ere, epika eta berba handi bako istorio xeblebre hauek dira literaturak gerraostean gainean utzi dizkien argazki fidagarrienak.

47ko Italiar Konstituzioaren lehen pausu dudatiak aztertzen dituen liburua da, nolabait. Testuan behintzat komunismoari ateak zabalik uzten zizkion mendebaldeko europako konstituzio bakarra izan zen. Joko demokratikoa hain zabalik eta gerra hain hurbil egoteak moldatzen ditu alegiazko herri txikitxo bateko gertaerak. Tradizioa eta kristautasuna ordezkatzeko dituen abadea eta hala-moduzko ideial sozialistak maite dituen alkatea dira protagonistak. Lehenak "gauzak herri kulturako ministerioa zegoenean baino okerrago" ikusten ditu eta besteak langile libreen mundua eraiki nahi du bere alkatetza umiletik. Mundu librea, bai, eta ez Italia librea. Abertzaletasunaren ingurukoan baino areago justiziaren inguruko burruka dialektikoan ari dira. Arlo horretan askotan egingo dute biek bat, nahiz eta hori onartzea baino nahiago izango duten urkamendia. Itxurak gorde arren akordioetara iristeari buruzko istorioa da, azken batean.

Eurena defendatu arren gizalegearen mugen barruan ibiltzeari garrantzi handia ematen diote biek. Abadeak ukabildakadak ogi-santua baino errazago erabili arren funtsean miretsi egiten du alkatearen zuzentasuna. Alkateak ere zartadak tradizio boltxebike artezenari jarraituz banatu arren, abadearen humanismoa ulertzen du. Bata bestea baino astoagoak diren botere faktiko biak, beraz, ez dute hitz zorrotzen eta mendeku originalen muga zeharkatzen.

Sinestezina eta inbidia ematekoa da, bestalde, idazlearen luma. Gona altxatzea, adibidez, "antzokiko ohiala altxatzea" da. Lerroz lerro somatzen den satira kutsua laster ulertzeko moduko irudiekin landuta dago. Mapan galduta dagoen herri txiki bateko arazoak Kominternaren eta Vatikanoren arteko burrukaren adibide bezala jartzeak asmo satiriko hori indartu egiten du. kontsigna izugarrien garaian berauek traizionatu ez baina elkarbizitza posible bihurtzeko behar den arteaz ari da Guareschi, modu xeblebrean. Koldo Bigurik ere ez dauka meritu txikerra, ahozko kontakizunetik oso hurbil dagoen euskara bizian itzulpenaren miraria posible egiteko.

Liburua ixtean autorea bera ere busti egiten dela dirudi. Azken istorioan balantzak abadearen alde egiten duela esango nuke. Badirudi Marxi esaten ari zaiola bere kalkulu ekonomikoen gainetik badagoela ahazten zaila den zerbait: erlijioaren inguruko batasun sentimentala. Gizakiaren azpiegituran kokatzen du Guareschi azkenean erlijioa. Konstituziorik zabalena ere betiko ideia zaharrek irabazten dute. Historia perfektua ez bada, zelan izango da ba perfektua italiako herri txiki bat.

Gara, 2002-02-02